



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**ADIMEN GAITASUN HANDIA, SORMENA ETA GORPUTZ**

**HEZKUNTZA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Gomez Aparicio, Onintze

ZUZENDARIA: Cortabarría Cortazar, Lorea

**2019/2020**



## LABURPENA

Adimen gaitasun handia definitzeko modu ezberdinak topatu dira, hala nola, historian zehar ikuspuntu ezberdinetatik definitua izan da. Hortaz, eredu ezberdinak topatu dira nabarmenenak Renzulli-ren hiru eraztunen teoria eta Gardner-en adimen anitzen teoria, gai honetan aurrerapen handia ekarri zuena. Eredu ezberdinak aztertu eta gero gaur egun AGH definitzeko Gardner emandako definizioa erabiltzen da. AGH duten pertsonen inguruan hainbat mito edo estereotipo ditugu, sormena eta gorputz hezkuntzaren inguruan, besteak beste. AGHko pertsonak sortzaileak direla eta jarduera fisikoa egiterako orduan traketsak direla. Horrela izango da? Sormenari dagokionez definizio ezberdinak topatu dira ere, baina Gardnerrek pertsona sortzaile bat izateko ideia berriak sortzen dituztenean eta testuinguru batean onartua izaten denean. Gorputz hezkuntza curriculumean aurkitu dezakegun irakasgaia da, non mugimenduaren bitartez alderdi motorra lantzen den. **Metodoa:** Ikerketa bat egin da, horretarako galdetegi bat pasatu zaie Lehen Hezkuntzako irakasle batzuei adimen gaitasun handiren eta sormenaren inguruan. Ikerketa honen lagina 10 irakasle dira eta bi taldetan antolatuta izan dira, alde batetik 50 urtetik gorakoak, eta beste aldetik 20-39 urte bitartekoak. Galdetegi honen bitartez AGHren inguruko mitoak baieztatzen diren edo ez jakiteko egin da. **Emaitzak:** Emaizten analisisian adina kontuan hartuta emaitza ezberdinak atera dira. **Ondorioak:** Sormenaren eta gorputz hezkuntzaren inguruko mitoak baieztatu egin dira, hau da, AGHko haurrak sortzaileak eta gorputz hezkuntzan traketsak direla uste da. Gainera, adina kontuan hartuta ezberdintasunak nabariak izan dira, eta pentsamolde aldaketa egon dela ikusi da.

**Hitz gakoak:** Adimen gaitasun handia, sormena, gorputz hezkuntza, mitoak

## RESUMEN

Se han encontrado diferentes formas de definir una gran capacidad intelectual, como, por ejemplo, que a lo largo de la historia ha sido definida desde diferentes puntos de vista. Por tanto, los modelos más destacados han sido la teoría de los tres anillos de Renzulli y la teoría de las inteligencias múltiples de Gardner, que supuso un gran avance en este tema. Una vez analizados los diferentes modelos, en la actualidad se utiliza la definición de altas capacidades de Gardner. En torno a las personas con altas capacidades tenemos mitos o estereotipos como la creatividad y la educación física. Las

personas con altas capacidades son creativas y torpes en la práctica de actividad física. ¿Así será? En cuanto a la creatividad, también se han encontrado definiciones diferentes, pero Gardner dice que una persona es creativa cuando crea nuevas ideas y es aceptada en un contexto. La educación física es una asignatura que podemos encontrar en el currículo, donde a través del movimiento se trabaja el aspecto motor.

**Método:** Se ha realizado una investigación para la que se ha pasado un cuestionario a un grupo de profesores de Educación Primaria sobre altas capacidades intelectuales y creatividad. La muestra de este estudio está compuesta por 10 profesores organizados en dos grupos, por un lado, mayores de 50 años y por otro de 20 a 39 años. A través de este cuestionario se ha realizado para conocer si se confirman o no los mitos sobre las altas capacidades. **Resultados:** Se han obtenido diferentes resultados teniendo en cuenta la edad en el análisis de resultados. **Conclusiones:** Se han confirmado los mitos sobre la creatividad y la educación física, es decir, se considera que los niños y niñas de altas capacidades son creativos y torpes en la educación física. Además, teniendo en cuenta la edad, las diferencias han sido notables y se ha observado un cambio de mentalidad.

**Palabras clave:** Gran capacidad intelectual, creatividad, educación física, mitos

# AURKIBIDEA

SARRERA.....	6
JUSTIFIKAZIOA.....	6
MARKO TEORIKOA .....	8
1- Adimen gaitasun handia.....	8
2- Sormena.....	16
3- Gorputz hezkuntza .....	22
HELBURUAK.....	27
METODOLOGIA.....	27
EMAITZAK.....	28
ONDORIOAK .....	31
MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	34
BIBLIOGRAFIA.....	35

## **SARRERA**

Adimen gaitasun handia bigarren maila batean dagoen gai bat da, hortaz aurreiritzi eta ezjakintasun handia dago adimen gaitasun handiko haurren aurrean nola jokatu behar dugunaren inguruan. Beraz, gai honetan indarra jartzea eta agerian ustea beharrezkoa litzateke, batez ere hezkuntzan, irakasleak adimen gaitasun handiko ikasle baten aurrean nola jokatu behar duten jakiteko.

AGHko ikasleen inguruko aurreiritziak alde batera uztea beharrezkoa da esku hartze on bat egiteko, baina batez ere identifikazioa egitea eta beraien beharrei erantzutea da garrantzitsuena. Horrela gainontzeko ikasleak bezala integratuak eta beraien beharrak asetuta egongo dira. Baina, esku hartzea egiten ez bada eta aurreiritzietatik jokatzen badugu AGHko ikasleak ez dira gustura sentituko eta ez da beraien gaitasuna landuko. Gainera, aurreiritzietatik urrun hainbat ezaugarri ezberdin dituzten haurrak dira, ez dira eskolan apartekoak izan behar, ez traketsak gorputz hezkuntzan, ez oso sortzaileak, etab.

Bestalde, pertsona sortzaileak aparteko ideiak izaten dituzte eta garatu daitekeen alderdi bat da. Eskolak paper handia dauka, hortaz, eskolan sormena lantzen bada AGHko ikaslea sortzailea izan daitezke eta agian erraztasunak izan.

Azkenik, Gorputz hezkuntza ikasle guztiengan onurak dakartza, bai psikologikoki bai fisikoki eta ikasle abileziagoak edo traketsagoak egon daitezke.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Gaur egungo gizartean sormena indarra hartzen joan da, pil-pilean dagoen gai bat izan arte. Hezkuntzan, batez ere, gero eta garrantzi handiagoa dauka lan merkatuak dituen eskakizun berriengatik, beraz, sormenaren inklusioa ematen ari da, hau da, hezkuntzan aldaketak ematen ari dira sormenezko ekintzak bultzatzeko eta ahalmen sortzailea garatzeko. Gainera, ikasle guztien integrazioa hezkuntza sistemaren helburu bihurtu dira eta azken hamarkadan eskoletan bazterkeriarik ez egoteko ikuskera pedagogikoak eta politikoak egon dira, ikasle guztientzat hezkuntza kalitate on bat bermatzeko.

Hortik, eskola inklusiboa jaio da, zeinetan eremu bateko haurrak joaten diren beraien ezaugarriak oztopoa izan gabe. Hau da, Down sindromea duten haurrak, itsuak direnak, gurpildun aulkietan joaten direnak, autistak baita adimen gaitasun handiko haurrak ere. Beraz, ikasle hauentzat hezkuntza erantzun espezifiko bat egon behar da nahiz eta gainontzeko ikasleekin batera egon.

Adimen gaitasun handiarekin jarraituz, duela gutxi berriro ikertzen hasi zen gaia izan da eta lehen adimenarekin soilik lotzen zena. Orain pertsonen beste aldagai batzuk kontuan hartzen hasi dira, hala nola, aldagai pertsonalak eta inguruneak eta horren arabera adimen profil ezberdinak egongo dira. Gainera, ikerketetan aldagai kognitibo berriak sartzen ari dira eta horien artean sormena daukagu.

Era berean sormenaren inguruko ikasketak egin dituzten hainbat ikertzaile daude eta adimenaren kontzeptua barne hartzen dute. Horren arabera hiru teoria mota aurkitu ditzakegu (Alonso, 2000): lehenengoa adimena sormenaren elementu bat da, bigarrena sormena adimenaren elementu bat da eta hirugarrena sormena eta adimena maila berean daude. Baina teoria guztietan elkarbanatzen duten ideia bat dago: sormena eta adimena lotuta daude.

Bestalde, adimen gaitasun handiarekin hain lotuta ez dagoen kontzeptu bat dago: jarduera fisikoa. Gizartean adimen gaitasun handiko pertsonen denbora jarduera fisikoa egiten ematea denbora galtzea dela uste duten pertsona daude, jarduera fisikoa egiteak dakartzan onurak baztertuz, baita gorputz hezkuntzak sormena eta osasuna sustatzeko ematen duen aukerak ere.

Hori guztia dela eta, adimen gaitasun handiko haurren inguruan dauden ezagutzak, adimenarekin lotuta dagoen edo ez eta AGHaren, gorputz hezkuntzaren eta sormenaren inguruan dauden mitoak aztertuko ditut GRAL honen bitartez. Hau guztia irakaslearen funtzioa eta ikaslearen papera kontuan hartuz.

# MARKO TEORIKOA

## 1- Adimen gaitasun handia

Adimen gaitasun handia definitzea ez da batere erraza, horregatik historian zehar definizio, ikuspuntu eta eredu ezberdinak egon dira. Jarraian eredu ezberdinak jorratuko dira AGHren inguruko kontzeptuak lantzen dituztenak (Albes, Aretxaga, Etxebarria, Galende, Santamaria, Uriarte eta Vigo, 2013).

### 1.1. AGHren azalpen ereduak

Errendimenduan oinarritutako ereduak (Albes et al., 2013)

Eredu honetan bi autore aurkituko ditugu J. Renzulli eta F. Gagné, zeintzuk errendimenduari lotutako ezaugarrietan zentratzen diren. Renzullik (1978, Renzulli eta Geasser, 2015tik aterata) Hiru Eratzunen Teoria proposatu zuen eta hiru ezaugarrien arteko loturan oinarritzen da, hauek dira hiru ezaugarriak:

- Ahalmen espezifiko edo orokorra batezbestekoaren gainera
- Jarduerarekin konprometuz altua
- Sormen handia

Hiru eratzunen ereduak potentzial akademikoak nahiz sormen potentziala garatzeko esku hartze programa baterako diseinatu zen (Renzulli eta Geasser, 2015).

*Modelo de los tres anillos (Renzulli)*



Berarentzat hiru ezaugarrien interakzioa beharrezkoa da adimen gaitasun handiei buruz hitz egiteko.

Bestalde, Gagné (1985) adimen gaitasun handia eta talentuak ezberdintzeko ereduak sortu zuen, hau da, AGH eta talentu bat izatea ezberdintzen ditu. Berarentzat AGH izateko gaitasun natural ugarian goi-mailako errendimendua erakutsi behar dute, Talentua izateko, aldiz, giza jardueraren eremu ezberdinetan goi-mailako errendimendua erakutsi behar dute. Gainera ezaugarri intrapertsonalak eta inguruneak aipatzen ditu, hau da, jaiotze tokia, testuinguru soziala, sortea, etab. eragina izan ahal dute jarrera pertsonalen garapenean. Ereduak sei eremu natural proposatzen ditu, horietako lau eremu mentalekoak (intelektuala, sortzailea, soziala, pertzepziozkoa), eta beste biak esfera fisikoarekin zerikusia dutenak (giharrak, eta kontrol motorra) (Gagné, 2014).





DMGT (Gagné, 2014)

### Orientazio soziokulturaleko ereduak (Albes et al., 2013)

Honen barruan bi eredu aurkitzen dira, alde batetik Tannenbaum-en AGH osatzen duten faktore psikosozialen eredu (1997) eta beste aldetik, Mönks-en interdependentzia triadikaren eredu (1992). Tannenbaum-en ereduari testuinguru sozial eta kulturalari garrantzia ematen zaio, adimenaz gain ezaugarri pertsonalak sozialak eta kulturalak beharrezkoak dira. Hortaz, talentuaren eta pertsonaren potentziala garatzerako orduan testuinguruaren eragina garrantzitsuak dira. AGHaren gogoetan hurrengo alderdiak kontuan hartu behar dira:

- Ahalmen orokorra
- Jarrera espezifikoak
- Adimenaren lotuta ez dauden alderdiak
- Testuinguruaren eraginak
- Sorte edo aukera alderdia

Horrez gain, Mönks-en ereduari AGH testuinguruaren eta pertsonaren arteko interakzioaren ondorioz ematen den fenomeno dinamiko bat bezala ikusten da. Berak hiru eraztunen teoriari eskola, lagunak eta familia gehitzen dizkio.

### Eredu kognitiboak (Albes et al., 2013)

Stenberg-ek proposatutako ereduari (1986) kognizio maila altuak, sormena eta praktika lotzen dira. Teoria hau hiru teoria ezberdinez osatuta dago: osagai teoria, teoria esperientziala eta testuingurukoa eta hiru teoria horiek erabili ditu adimen gaitasun handia azaltzeko:

- Osagai Teoria edo pertsonaren adimena eta barne munduaren arteko erlazioarena. Adimenaren barne dauden adimen prozesuak azaltzen dira.

- Teoria Esperientzuala adimenari eta bere bizitzan izandako esperientziari egiten dio erreferentzia.
- Testuinguruko Teoriak adimena eta pertsonaren kanpo mundua aztertzen du.

Autore honek adimen analitikoa, sormenezkoa eta praktikoa deskribatzen ditu, haien artean lotuta daudenak eta adimen arrakastatsua izateko beharrezkoak direnak.

### Gaitasunetan oinarritutako ereduak

Eredu honetan, Gardnerren Adimen anitzen teoria (1983) dago eta adimenaren ikuspuntua aldatzen hasiko da. Gardner erabat desados zegoen hurrengo ideiekin: 1) adimena ahalmen bat da, orokorra, gizaki orotan gertatzen dena, neurri handiagoen edo txikiagoan, eta 2) ahalmen hori tresna estandarren bidez kuantifikatzen dela (Mora eta Martin, 2007). Gardnerrek adimen intrapertsonala eta interpertsonala sartu zuen eta alderdi kulturalen eta testuingurukoaren eragina ere aipatzen zuen (Albes et al., 2013). Gardnerrek beste definizio bat eman zion adimenari baina lehenengo Adimen anitzen teoria planteatu zuen eta adimen linguistikoa eta matematikoa kontuan hartzeaz gain beste sei adimen gehitu zituen: espaziala, kinestesikoa, interpertsonala eta intrapertsonala. 1983an zazpi adimen ezberdin aipatu zituen, hau da, adimen musikala gehitu zuen baina 1995ean zortzigarren bat sartu zuen: naturalista. Gardnerren ustez adimen koefizientea estatikoa dela pentsatzea errakuntza bat da, baita arkatza eta orri batekin egiten diren proben bitartez neurtzea ere (Ernst-Slavit, 2001). Adimenak Gardnerren ustetan (Albes et al., 2013):

- Adimen kinestesikoa → Gorputza erabiliz arazoak ebazteko, sortzeko edo objektuak aldatzeko ahalmena da: emozio bat adieraztea, sentimendu bat transmititzea, objektuak manipulatzeko, mugimendu bat aurreikustea...
- Adimen matematikoa → Ahalmen logikoa, matematikoa eta zientifikoa da. Ereduak identifikatzea, eragiketak egitea, hipotesiak sortzea eta egiaztatzea, pentsamendu inductiboa eta deductiboa eta pentsamendu abstraktoa...
- Adimen musikala → Forma musikalak sortzeko, hautematzeko, transformatzeko, analizatzeko eta interpretatzeko ahalmena da.
- Adimen espaziala → Espazioaren eredu mental bat sortzeko eta bertan jarduteko ahalmena da.
- Adimen linguistikoa → Hizkuntzaren bitartez interpretatzeko, adierazteko, ulertzeko eta sortzeko ahalmena da.
- Adimen interpertsonala → Gainontzekoak ulertzeko eta beraiekin harremantzeko ahalmena da.

- Adimen intrapertsonala → Barne ezagutzarako ahalmena da, emozioak eta sentimenduak ezagutzea, helburuak sortzeko ahalmena, beharrak ezagutzea, ahuleziak eta abileziak ezagutzea...
- Adimen naturalista → Natura ezagutzeko eta interpretatzeko ahalmena da. Animalia eta landare motak, haien zainketa, klima...

*Gardner sostiene que no se trata de saber cuán inteligente una persona es sino cómo esa persona manifiesta su inteligencia.*

(Ernst-Slavit, 2001)

## **1.2. Definizioa**

Aurretik adimen gaitasun handiaren kontzeptua historian zehar aldatuz joan dela ikusi dugu eta hasieratik zaila izan da definizio zehatz bat ematea gaiaren aniztasunagatik, hau da gai oso zabala da. Baina AGHaren definizio bat emateko adimena zer den jakin behar dugu, Gardnerrek adimena arazoak ebazteko edo testuinguru kultural batean onartua den emaitza bat emateko gaitasun moduan definitu zuen (Ernst-Slavit, 2001). AGHaren definizio ezberdinak egon dira historian zehar lehen aipatuko ereduaren ikuspuntuaren eraginez. Hasteko, 1971an Marland informean adimen gaitasun handiko edo talentua daukaten haurrak errendimendua kontuan hartuta profesionalak identifikatzen zituzten haurrak ziren eta maila altuko programa edo zerbitzuak behar zituzten. Ondoren, Rezullik (1997) bere teoriarik aipatzen dituen hiru ezaugarriak dituzten haurrak adimen gaitasun handikoak zirela esan zuen, hau da, adimen gaitasuna batezbesteko baina altuagoa duten haurrak. Ostean, behar bereziekin lotzen hasi zen, Gonzalez-ek (1995) horrela definitzen zituen AGHko haurrak: behar bereziak dituzten haurrak dira zeintzuk gaitasun handi horiek garatu behar dituzten (Garcia, 2004).

Dena dela, zentzu zabal batean gaitasun handiak dituzten ikasleek hitz egin dezakegu ondoko arloetako batean edo batzuetan adierazpen nabarmenak eta/edo trebetasun potentzial bat duen ikasleen talde heterogeneoaz ari garenean: trebetasun intelektual orokorra, ikasketa gaitasun espezifikoa, pentsamendu produktiboa edo sormenezkoa, lider izateko trebetasuna, ikusmen edo irudikapen-arteak eta psikomotritate-trebetasuna. Baina bi talde mota desberdin daitezke (Eusko jaurlaritza):

1. Gaitasun ugarian goi-mailako errendimendu intelektuala dutenak eta edozein arlotan erraz ikasten dutenak

2. Oso zehatzak diren arloetan trebetasun espezifikoak erakusten dituzten ikasleak: ikasketak, matematikak... → Talentua

Hala eta guztiz ere, XX. mendera arte ez da adimen gaitasun handiei buruz hitz egin. XX. mendearen hasieran Alfred Binet eta Teodoro Simon (1905, Ernst-slavit, 2001tik aterata) lehenengo testak sortzen hasi ziren ikasle hauen gaitasunak neurtzeko. Test horiek gaitasun aritmetikoa, ulermena eta lexikoaren jabetza neurtzen zuten. Terman Binet-en testa birpasatu zuen eta adimen koefizientearen kontzeptua sartu zuen. XX. mendearen bigarren erdian psikologia kognitiboan eta neurozientzian eman ziren aurrerapenei esker testak zalantzan jarri ziren. Alde batetik, testak ez dute erantzun bat edo bestea ematearen prozesu kognitiboari buruz informaziorik ematen eta beste aldetik irudimena, sormena edo intuizioa kontuan hartzen ez dutelako. Gaur egun sormena eta irudimena adimenaren parte diren pentsatzen da (Ernst-slavit, 2001).

Gaur egun, adimen gaitasun handia ez dagoela soilik adimenarekin lotuta pentsatzen duten hainbat ikertzaile daude, aldagai pertsonalak eta inguruneak kontuan hartu behar direla esanez eta horren arabera adimen profil ezberdinak egongo direla. Azkenengo hamarkadetan, adimen gaitasun handiari buruzko ikerketetan aldagai kognitibo berriak sartu dira kontzeptua hobeto ulertzera eramaten dituztenak. Bestek beste, sormena, arreta mentala, autorregulazioa, metakognizioa eta estilo kognitiboak (Hernandez eta Gutierrez, 2014).

### **1.3. AGHko haurren ezaugarriak (Albes et al., 2013)**

- Orokorrak
  1. Kuriositatea eta txikitatik ikasteko gogo handia, baita jarduera, energia eta kontzentrazio maila handia ere.
  2. Modu Konplexuan arrazoitzeko gaitasuna
  3. Heltze goiztiarra
  4. Epe luzeko oroimen ona
  5. Hizkuntzaren menderakuntza
  6. Pentsamendu sinbolikoa eta abstraktua
  7. Azkar ikasten dute
  8. Sentsibilizazio eta intentsitate emozional altua
  9. Eginkizunak ondo egiteko eta hobetzeko joera
  10. Gaitasun kritikoa

## 11. Arazo sozialen aurrean kezkatze goiztiarra

- Sormena eta irudimena:
  1. Kuriositatea
  2. Originaltasuna
  3. Irudimena
  4. Pentsamendu jariakorra eta ezagutza eta ideien elkarketa jariakorra
  5. Gauzen zergatia ezagutu behar dute
  6. Amaitu gabeko egoeran irudikatze, istorioak asmatzeko... erraztasuna
  7. Ikertzeko joera
  8. Ohiturak eta arauak apurtzeko gaitasuna eta beraien proposamenetan independentzia

### **1.4. AGHko haurren beharrak eta identifikazioa**

Adimen gaitasun handiei buruzko Aupatuz elkartearen ustez Adimen gaitasun handiaren kontzeptua gaitasun handiagoa dutenei aukera gehiago emateko sortu zen. Hezkuntza ikasle bakoitzari egokitzean bakoitzaren gaitasunak garatzeko aukera eskaintzen da eta desmotibazioa, atentzio falta ekiditen da. Beraz identifikazioa garrantzitsua da ikasle bakoitzak behar dituen beharrak asetzeko edo gaitasunak garatzeko. AGHko haurrak dituzten behar batzuk:

1. Bera den moduan onartzea
2. Behar kognitiboak, sozialak eta emozionalak denen artean lantzea
3. Autokontzeptu positiboan sakontzea. Beraren indarguneak eta ahuleziak ezagutzea
4. Bere burua ezagutzen laguntzea, adimen gaitasun handia zer den jakitea eta horrek dakarren abantailak eta desabantailak ere.
5. Berak duen ikasteko nahia eta kuriositatea onartzea.
6. Gaitasunen eta bere nahien eta aukeren eta eskakizun sozialen arteko oreka lortzea
7. Berak dakiena erakusteko eta esateko duen nahia aitortzea.
8. Estimulazio intelektuala, sortzailea... egokia eta jarraikorra.
9. Zaletasunak eta interesak partekatzen dituen pertsoekin harremantzeko aukera eman.

Dena den, gainontzeko haurrak bezala talde heterogeneoa eta anitza da, hortaz bakoitzak behar eta ezaugarri propioak izango ditu nahiz eta orokor batzuk dauden, identifikazioa egiterako orduan garrantzitsuak direnak.

Adimen gaitasun handiko haurren identifikazioan irakasleak paper garrantzitsua jokatzeko dute eta gainera erantzuna eman behar diete horretarako Vidal-ek hainbat orientabide ematen ditu:

- Taldean lan egitea behar dute
- Gainontzeko ikasleekin egon motrizitate jardueretan
- Erronkak dituzten ekintzak proposatu
- Beraiek ekintzaren bat prestatzea
- Beraiek ikertzea
- Irakasleak originalak izatea

Baina horretarako adimen gaitasun handia identifikatu behar da, AGHko ikasleak identifikazio goiztiarra eta ikasleen ezaugarri, premia eta ahalmenetara egokitutako hezkuntza erantzuna behar dute (Etxebarria, Arpide, Badiola eta Martinez, 2019). Historian zehar adimen gaitasun handia detektatzeko testak egin dira, baina hasieran gaitasun analitikoak kontuan hartzen ziren, hau da, adimen koefizientea neurtzen zen (Marugán et al., 2012). 1905ean Alfred Binet eta Teodoro Simon Binet-Simon eskala sortu zuten, gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko. Ondoren, 1930ean, Adimen testa deitu zen eta adimen koefizientearen kontzeptua sartu zen lehenengo aldiz. Test horrek adimen linguistikoa eta matematikoa neurtzen du (Ernst-Slavit, 2001). AGHko haurrei egiten zaien testetan sormena ebaluatzeko ekimen berriak atera dira eta horretarako Torranceren sormenezko pentsamenduaren Test-a erabiltzen ari da (Hernandez eta Gutierrez, 2014).

Gaur egun, AGHren identifikazioan hainbat erraminta erabiltzen dira, hala nola, galdetegiak eta hainbat agente parte hartzen dute, familia, ikaslea, irakasleak, aholkulariak, orientatzaileak eta berritzeguneko aholkulariak, besteak beste. Detekzioaren barruan hiru fase ezberdin daude (Aupatuz, 2020):

- Lehen fasea: Iragazpena
- Bigarren fasea: Detekzio espezifikoak
- Hirugarren fasea: Balorazio psikopedagogikoa

Behin identifikatuta hezkuntzaren barruan, curriculum neurri bereziak jarri ahal zaizkie: Zabalteko curriculum egokitzea eta derrigorrezko eskolatzaldia malgutzea

(EHAA, 1998). Zabaltzeko curriculum egokitzapena arlo-kopuru jakin batean errendimendua apartekoa denean, errendimendu orokorra apartekoa eta jarraia denean, baina eremu aktiboekin eta gizarteratzeko eremuekin disinkronian dagoenean egiten da, helburuak eta edukiak aberasten, ebaluaziorako irizpideak malgutzen eta berariazko metodologia jartzen zaizkie. Bestalde, derrigorrezko eskolatzaldia malgutzea bere zikloko edo mailako helburuez jada jabetu denean eta neurri hori bere oreka pertsonala eta gizarteratzea garatzeko egokia dela aurreikusten denean egiten da, derrigorrezko eskolatzearen hasiera aurreratzen edo eskolatzaldia murrizten zaizkie (EHAA, 1998).

Adimen gaitasun handia garatzen den zerbait bezala kontuan hartzen badugu, inplikazio praktikoak beharrezkoak dira, hau da, esku-hartze bat proposatu behar dela, edozein motatakoa, haien gaitasunak guztiz garatzeko (Borges, Hernández eta Rodríguez, 2009)

### **1.5. AGHei buruzko mitoak**

Adimen gaitasun handiaren inguruan ikerketa eta literatura asko existitzen dira, kontzeptutik abiatuta, esanahitik pasata AGHko pertsona batek izan ditzakeen ezaugarriei helduta. Edozein pertsona interneten sartu daiteke eta AGHaren inguruan bilatu. Hortik mitoei heltzeko pausu txikia dago (Borges et al., 2009). Adimen gaitasun handiaren inguruan mito asko aurkitu ditzakegu eta hori pertsona hauen garapenean eragin negatiboa dakar. Hainbat mito aipatuko ditut baina batez ere bi mito kontuan hartuko ditut, sormenaren ingurukoa eta jarduera fisikoaren ingurukoa (Boletín Fanjac, 2010).

1. Adimen gaitasun handia duten ikasleak ez dute laguntzarik behar dena ondo egiten dutelako. → AGHko haurran irakasleen orientazioa behar dute, haien laguntza eskaintzen dietenak gaitasunak osotasunean garatzeko. Ikasle batzuk haien frustrazioagatik eta aspertzeagatik errendimendu baxua eduki ahal dute.
2. Edozein ume adimen gaitasun handia eduki dezake estimulatzeko bada. → Ume guztiak naturalki ez dute aparteko dohainik. Kirolean, musika edo arte eszenikoetan aparteko haurrak entrenamendua behar dutela gehienok onartzen dugu, beraz adimen gaitasun handia dute hurrekiko ezaugarri eta desberdintasun berdinak onartu beharko lirateke.
3. Adimen gaitasun handiko haurrak eskolan liderrak dira eta ondo integratuak daude. → AGHko haur batzuk zoriontsuak eta oso integratuak daude baina beste batzuk, aldiz, haien ikaskideei hurbiltzeko arazoak izaten dituzte haien

sentsibilitate emozionalaren eta moralaren ondorioz. Gainera, haien ikaskideekin interesak elkarbanatzen ez dituztenak ere badaude, hortaz, isolatzen dira.

4. Adimen gaitasun handiko hurrek ez ditu nota txarrak ateratzen. AGHko pertsonak hobeto eta gehiago lan egiten dute eta gainera, bakarrik ikasten dute, autodidaktikoak dira. → Ikasleen gaitasunaren eta errendimenduaren arteko desadostasunak ematen dira, umearen esperientzien ondorioz.
5. Adimen gaitasun handiko haurrentzako aberaste programak elitistak dira. → Herrialde guztiak ez dute ikasle hauentzat zerbitzurik eskaintzen.
6. Adimen gaitasun handiko hurrek sormen handia daukate. → Adimen gaitasun handia izatea sormenean emaitza hobekak izaten laguntzen du baina adimen gaitasun handiko pertsona guztiak ez dira apartekoak sormenean. Sternberg-ek (1990, Marugán de Miguelsanz, Del Caño, Román, Gonzalez eta Lara, 2006) sortzailea izateko ez dela behar adimen gaitasun handia izatea baieztatu du.
7. Adimen gaitasun handiko hurrek jarduera fisikoa egiterako orduan traketsagoak dira. Adimen gaitasun handiko hurrek ez dute beraien aisialdi denbora jarduera fisikoa egiten galdu behar. → Onura fisiko, psikologiko eta emozionalak ekartzen dizkiete.

Aurreko mitoak kontuan hartuta hainbat profil sortzen dira baina adimen gaitasun handia duten hurren artean profil ezberdinak aurkitu daitezke mitoetatik urrun daudenak (Albes et al., 2013):

1. Errendimendu akademiko ona duen ikaslea
2. Errendimendu akademiko baxua duen ikaslea
3. Ikusezinak den ikaslea
4. Desafiatzailea edo sortzailea den ikaslea
5. Ikasle autonomoa
6. Kultura ezberdineko eta ingurune sozial baztertuko ikaslea

Azkeneko bi hauek kontuan hartuko ditut lana aurrera eramateko.

## **2- Sormena**

### **2.1. Definizioa eta teoriak**

Sormena duela urte asko hainbat ikertzaileek aztertutako gai bat da, baina hezkuntzan sormenaren garrantzia kolokan jarri zuen lehenengo ikertzailea Guilford izan zen 1950ean eta hortik aurrera sormenaren kontzeptuak aldaketa bat jasango du.



Sormena irudimenarekin, magiarekin eta intuizioarekin lotzetik pentsamendu arrazionalarekin eta zientifikoarekin lotzera pasako da (Alvarez, 2010). Gainera, Guilford adimenaren egituraren teoria egin zuen eta sormenaren ikaskuntzan eragin handia izan du, berak sormena pentsamendu dibergentearen zati bat bezala ikusten baitu (Jimenez, Artilles, Rodriguez, Garcia, Camacho eta Moraes, 2008). Pentsamendu konbergentea arazoei ohiko erantzunak ematea bideratzen duen pentsamendua dela kontuan hartuz eta pentsamendu dibergentea irizpide originalak, malguak eta asmatuak ematera bideratzen duen pentsamendua dela.

Baina sormena definitzerako edo loturak bilatzerako orduan hainbat ikertzaile eta ikuspuntu ezberdinak topatzen ditugu: Sormena adimenarekin, nortasunarekin, kulturarekin eta motibazioarekin lotzen dituztenak.

### Sormena eta nortasuna

Sormena ez dagoela bakarrik pentsamenduarekin edo adimenarekin lotuaren ideia gero eta gehiago topatzen da, hau da, beste alderdi batzuk ere sormenena eragina dute, hala nola, nortasuna. Orduan Amabile, Hennessey eta Grossman-ek (1986) sormenarekin lotutako ezaugarri pertsonalak aipatu zituzten: barneko motibazioa, kuriositatea eta espiritu- ludikoa.

Besteen iritziekiko independentzia sormenaren ezaugarri garrantzitsu bat da (Alvarez, 2010).

### Sormena eta kultura

Ondoren, Csikszentmihalyik sormenaren ikuspuntua aldatu zuen, berareztat sormena ez da pertsonen adimenetik sortzen, baizik eta pertsonen pentsamenduen eta testuinguru soziokulturalaren arteko interakziotik. Getzelsekin batera sormenezko erantzun bat emateko ezaugarririk garrantzitsuena aipatu zuen: testuinguruan konponbide bat behar duen erronka bat dagoela sentitzea. Beraz, autore hauek sormenaren ikuspuntu berri bat sartzen dute, lehen sormena pertsonetan hasi eta bukatzen dela uste baitzuten.

### Sormena eta motibazioa

Gai honetan motibazioa ezin da ahaztu, emaitza sortzaileak barne eta kanpo motibazioari lotuta baitaude. Bi motibazio mota aurkitu ditzakegu:

- Barne motibazioa: zereginak egiterako orduan pertsonaren baitan aurkitzen den motibazioari erreferentzia egiten dio.
- Kanpo motibazioa: Kanpotik datorren motibazioari erreferentzia egiten dio, hau da, gizartetik edo inguru sozialetik datorrena, hala nola, zigortuak izatera beldurra, denbora falta, opariak, etab.

### Sormena eta adimena

Sormena adimenarekin lotuta dagoenaren ideia jarraitzaile asko ditu psikologoek artean eta oso gai eztabaidagarria izan da, baina ikertzaile gehienek sormenezko gauzak egiteko adimen maila ertain edo altua beharrezkoa dela uste dute. Gaur egun, ikertzaile gehienak sormena eta adimena ahalmen ezberdinak direla baina nolabait erlazionatuta daudela uste dute. Hortaz, Alonsok (2000) sormenaren eta adimenaren inguruko teoriak hiru multzotan sailkatu zituen (Marugán de Miguelsanz, del Caño , Roman, Torres eta Lara, 2006):

#### 1. Sormena adimenaren elementu bat da.

Adimenaren kontzeptuaren barruan sormena aurkitzen da eta Guilfordek (1967) egindako adimenaren estrukturaren teoria sormenaren ikaskuntzan eragin gehien izan duen teoria izan da. Arestian aipatu bezala, berak sormena pentsamendu dibergentearen zati bat bezala ulertzen du, hau da, arazo batetik emaitza bat baino gehiago emateko pentsamendua izatea, erantzunetan aniztasuna topatuz. Guilford egindako teoria Torrancek moldatu zuen eta sormenaren osagaiak aipatu zituen: jariakortasuna, malgutasuna, originaltasuna eta lanketa.

#### 2. Adimena sormenaren elementu bat da.

Sormenak adimena barne hartzen duela pentsatzen dute giza adimenaren ikasketa zientifikoa ikuspuntu ezberdinetatik egin delako eta kasu guztietan sormen prozesua topatzen da (Jimenez, Artiles, Rodrigez, Garcia, Camacho eta Moraes, 2008).

#### 3. Sormena eta adimena elkarren menpekoak dira, baina maila berean daude.

Gaur egungo planteamenduak sormena hainbat faktoreen interakzioagatik sortzen dela diote, bai faktore indibidualak, bai testuinguruko faktoreak. Azkenean, sormena eta adimena ikasten dituzten hainbat ikerketek emaitza ezberdinak topatu dituzte: Alde batetik autore batzuk sormenaren eta adimenaren arteko erlazioa topatu dute eta beste

batzuk, aldiz, ez dute erlaziorik topatu. Hattie y Rogers-ek (1986) eredu faktorial bat proposatu zuten, non sormena eta adimena dimentsio independenteak diren.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuta sormena adimenarekin lotzen den giza ahalmena da, baina lotuta egon arren konstruktio ezberdina sortzen dute, hau da, adimena eta sormena aldagai batzuetan antzekoak dira baina beste batzuetan ez. Adibidez, 2012an argitaratutako artikulu batean aipatzen zuen ikerketatik sormenaren eta adimenaren arteko hitzezko eremuan lotura gehiago topatzen direla, irudizko eremuan baino ondorioztatu zen.

Ikuspuntu ezberdinak aipatu ondoren, Gardnerrek sormenaren inguruan honako hau dio:

*“Las personas son creativas cuando pueden resolver problemas, crear productos o plantear cuestiones en un ámbito de una manera que al principio es novedosa pero que luego es aceptada en uno o más contextos culturales. De manera similar, una obra es creativa si primero destaca por su novedad pero al final acaba siendo aceptada en un ámbito.”*

Pertsona sortzaileei buruz hitz egiterako orduan gaitasun handiekin erlazionatzen da eta ikertzaile askok sormenezko gauzak egiteko adimen ertain edo altua beharrezkoa dela uste dute. Gainera gaur egungo adimen gaitasun handiari buruzko teorietan sormena aipatzen dute adimen gaitasun handia duten pertsonen ezaugarritzat. Sternberg-en ustez (1990) adimen gaitasun handiaren ezaugarri bat arazoei erantzun berriak topatzea da eta horrela definitua izan da sormena, pentsamenduaren prozesua non ideiak eta kontzeptuak elkartu egiten diren zeozer berria eta originala sortzeko (Alvarez, 2010).

## **2.2. Sormena eta AGH**

Aurrekoa kontuan hartuta, AGH eta sormena oso lotuta daude, nahiz eta ikertzaile batzuk lotura aurkitu eta beste batzuk ez sortzailea izateko adimen altua beharrezkoa da. Baina adimena ez da nahikoa sormenaren existentzia azaltzeko eta horregatik adimen handiko pertsona guztiak ez dira sortzaileak (Alvarez, 2010). Marugán et al. (2006) egindako artikulu batean sormenari buruzko ikasketa enpiriko aipatzen da, sormen test batekin egindakoa eta AGHko haurrak eta AGH ez zuten haurrak hartu

zituzten. Emaitzei erreparatuz, Adimen gaitasun handiko ikasleak emaitza hobek atera zituzten baina probaren pertzentila haur askok ez dute pasatu, ondorioz, AGH sormen testetan emaitza hobek izaten laguntzen du baina AGHko pertsona guztiak ez dira apartekoa. Sternberg-ek (1990) sortzailea izateko ez dela behar adimen gaitasun handia izatea baieztatu du, batzuetan adimen gaitasun handiak batzuetan sormenaren garapena oztopatu dezakela esaten zuen, gaitasun analitiko handiak sormen prozesua zailtzen baitzuen. Sternberg eta Lubart-ek (1997) sormena edozein izan dezakeen gaitasun bat dela esaten dute. Beraien ustetan emaitza sortzaile batek sei alderdi batu behar du: gaitasun kognitiboa, ezagutza, pentsatzeko era, nortasuna, motibazioa eta testuingurua.

Gainera, Institute of Personality Assessment and Research (IPAR), de la Universidad de California egindako ikerketetan adimenaren eta sormenaren arteko erlazioaren inguruko hainbat ondorioa atera zituzten (Marugán, Carbonero, Torres eta León, 2012):

1. Pertsona sortzaileak adimen koefiziente altua izaten dute normalean baina adimen koefiziente baxua duten pertsona ere sortzaileak izan daitezke.
2. 120 baino gehiagoko adimen koefizientea duten pertsonengan sormenak ez du eragin handirik. Hau da, adimen koefizientea 120 baino gehiago daukatenak ez dute sormen handiagorik. Pertsona horietan ez da lotura hori ikusten.
3. Sormenaren eta adimenaren arteko erlazioa aldakorra da. Aldakortasun hau adimenaren eta sormenaren zein alderdi neurtzen direnen eta zein tresna erabiltzen dutenen arabera da.

Ferrando, Prieto, Ferrandiz eta Sánchez-ek (2005, Marugán et al., 2012tik aterata) sormenaren eta adimenaren arteko lotura gutxi topatzen dituzte, adimen anitzekin erlazionatzen ez bada. Gardnerren Frames of Mind liburuan adimena ez dela sormena eta arazoak ebaztea kontrolatzen duen berezko gaitasuna aipatzen da. Baita Adimena garunaren alde ezberdinetan dagoela, nahiz eta konektatuta egon independientek direla eta adimenak garatu eta estimulatu daitezkeela egoera egokietan ere. Hortaz, Gardnerren hitzak hezkuntzan eragina izan zuten. Hala nola, Estatu Batuetan Adimen Anitzen Teoria eskoletan sartu zen eta hori kontuan hartuz ematen dituzte klaseak, baina ez da erraza klasea eramatea, irakasleen ikuspuntu tradizionala aldatu behar baita eta hezkuntza sistemak onartu behar du.

Hezkuntzari begira, teoria honekin irakasleek irakaskuntza indibidualizatua sortu behar dute, ikasle bakoitzaren gaitasun indibidualak ikusiz eta bultzatuz. Adimen anitzen

teoria kontuan hartuta eskolaren helburua ikasleen garapen integrala bermatzea da

*“ Educadores deben diversificar sus metodologías educativas para así poder alcanzar a la diversidad de las personalidades que anidan en el salón de clase” (Gardner, 1997)*

### **2.3. Sormenari buruzko mitoak**

Arestian AGHei buruzko mitoak aipatu ditugu, baina sormenari buruzkoak baditugu ere. Sormenaren inguruko ikerketak ezaugarrien ikuspuntu batetik menderatuak egon dira, pertsona sortzaileen nortasun ezaugarriak identifikatu nahian (Nicholls, 1972, Vecina, 2006tik aterata). Hortaz, hainbat alderdi ez dituzte kontuan hartu, testuinguru fisikoen, sozialen eta kulturaren eragina, besteak beste (Amabile, 1983, Vecina, 2006tik aterata). Gainera, orokorrean sormena ezin dela aldatu eta pertsona sortzaileak edozein momentutan sormenezko lanak egin ahal dituztela uste da. Uste hauek ez dira egiazkoak. Sormena garatu daiteke eta alderdi batean zentratzen direnak beste alderdiak alde batera uzten dituzte (Csikszentmihalyi, 1996, Vecina, 2006tik aterata), sortzailea izateak ahaleginak behar ditu.

Bestalde, sormena eta patologia gauza bera direnaren ustea dago. Zoritxarrez oso erraza da ulertzen ez ditugun pertsonak eroak direla pentsatzea. Baina, gaur egun, sormen handia duten pertsona asko topatzen dira osasun fisiko eta mental ona izateaz disfrutatu dutenak.

Ostean, sormena bakarrik talentua dutenak dutenaren ustea daukagu, uste hau besteengandik ezberdintzeko nahiagatik dator. Baina gizaki guztiok gure testuinguruan sormenezko emaitzak emateko gaitasuna dugu.

Lehen aipatutakoaren kontra, sormena ezin dela irakatsi ohiko ustea daukagu. Baita sormenezko jarduera batek berrikuntzara eramaten gaituela ere.

Bukatzeko, sortzailearen irudi publikoa pertsona bihurri eta bohemioa da, lotura sozial gutxirekin (Castaño, 2006).

### **3- Gorputz hezkuntza**

#### **3.1. Definizioa**

Gorputz hezkuntza azken urteetan aldaketa sakonak jasandako irakasgaia da, bai programaren aldetik bai irakasteko moduaren aldetik. Kirk-ek (1990, Contreras, Gil, Sebastiani, Pascual, Huguet, Hernandez,... eta Capllonch, 2010etik aterata) GHko curriculumeko eduki teorikoak ikuspuntu tradizionala eduki dutela esan zuen. Baina, azkenaldian, saioak aurrera eramateko ikuspuntua aldatu da, beraz, komunikazioa eta ekintzak testuinguruan jartzeko joera handitu egin da. Horrela, irakasgaiaren ikuspuntu integratzaileantze hurbiltzen doa eta hainbat funtzio gehitzen ditu: kognitiboak, adierazkorak, komunikatzeak eta ongizatekoak (dekreto 1631/2006, Contreras eta al., 2010etik aterata).

Gorputza eta mugimendua GHren oinarrizko atalak dira eta horietan zentratzen da saioak aurrera eramateko orduan. Alde batetik, ikaslearen jokaera motorra hobetzea eta ohitura osasungarrien finkatzea lortu behar du, beste aldetik, gorputzaren eta mugimenduaren heziketaren bitartez konpetentzia afektiboa eta soziala eskuratzea. Hau errealitatea bihurtzea aurrera eramaten den programazioaren, aplikatzen diren estrategia metodologikoen, klaseko klimaren, materialaren erabileraren eta ebaluazioa integratzeko moduaren araberakoa izango da (Contreras eta al., 2010etik aterata).

Gorputz hezkuntza curriculumean aurkitu dezakegun irakaskuntza bat da eta ikuspegi erreduzionistatik planteatzen zen, alderdi motorrari garrantzia emanez (Ortiz eta Torres, 2009). Gainera garrantzi gutxi eman zaio historian zehar, eduki minimoen artean sartuta baitzegoen (Aisenstein eta Guterman, 2007) eta balorazio gutxi ematen zitzaion, horrela urteak pasata administrazioarekin lotzen hasi zen eta gorputz hezkuntza, hezkuntza sistema berri bat sortzeko prozesuan gehiago balioezten hasi zen. Baina hori lortu baino lehen, beste irakasgaiekin alderatuz egoera ezberdin batetik hasi zen, irakasleen egoera ezberdinak, hezkuntzatik kanpo daude administrazioetik bideratzea, etab.

1990ean LOGSE legearekin Gorputz Hezkuntza beste irakasgaiekin kokatu zen Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculumean. Gorputz Hezkuntzak, Lehen Hezkuntzan garatu behar diren edukiak lantzen duela esaten du, hala nola, autonomia, oinarrizko ikaskuntza, aukera kognitiboak, komunikatiboak, aisialdikoak eta mugimenduzkoak. Beraz, horrela ulertuta Gorputz Hezkuntza ikasleen garapen integrala bermatzeko aukera ematen du. LOGSEren bitartez, Gorputz Hezkuntzaren estatusa handitu zen,

gutxietsita baitzegoen hainbat eskolatan (Ortiz eta Torres, 2009). Ondoren 2003an LOCE legea egin zuten eta Gorputz Hezkuntza gorputzaren eta osasunaren zaintzan eta egoera fisikoa hobetzera bideratu zuten, aisialdiko eta kirol jardueren bitartez aisialdiaren erabilpen konstruktiboa irakasteko. Edukiei begira ikuspegi tradizionalera bueltatzen da kognitiboan eta adimenean zentratuz. Ostean, LOErekin sartu ginen eta asteko Gorputz Hezkuntzako orduak murriztu ziren, bakarrik astero ordu bat eta erdi edukiz. Azkenik LOMCE legearekin asteko orduak gehiago izatera bueltatuko gara, 3 ordu astero.

Zenbait adituen ustetan oinarrituz, Gorputz Hezkuntzak garrantzia handia duela diote alderdi desberdinak garatzeko beharrezkoa delako. Berritzegune nagusiaren aburuz, *“Derrigorrezko hezkuntzaren xedea ikaslearen garapen erabatekoa eta harmoniatsua lortzea da, alderdi intelektualei, afektiboari, sozialei edota gorputzarekin lotutakoei dagokienez”*. Gorputzarekin erlazionatutako edukietan murgiltzeaz gain, balio kultural, sozial eta ezagutza anitzekin murgildu egiten dira ikasleak. Ikasgai honetan ematen diren irakaskuntza aukera hauek ez ditugu beste ikasgaietan modu berean ikusten, hori dela eta Gorputz Hezkuntza oso garrantzitsua bilakatzen da haur baten heziketa prozesuan (Celdrán, et al. 2016).

### **3.2. AGHko ikasleentzako onurak**

*“El objetivo primero y fundamental de la educación es el de proporcionar a los niños y a las niñas, a los jóvenes de uno y otro sexo, una formación plena que les permita conformar su propia y esencial identidad, así como construir una concepción de la realidad que integre a la vez el conocimiento y la valoración ética y moral de la misma. Tal formación plena a de ir dirigida al desarrollo de su capacidad para ejercer, de manera crítica y en una sociedad axiológicamente plural, la libertad, la tolerancia y la solidaridad”*. (MEC. LOGSE. Preámbulo, 1990).

Orokorrean, Gorputz Hezkuntzak hainbat onura ekartzen ditu (Celdrán, Valero eta Sánchez, 2016):

#### **1. Atxikidura, osasuna eta bizi kalitatea**

Jarduera fisikoa modu jarrai batean egiteak ikasleengan atxikidura sortuko du eta modu aktiboan arituko dira beraien bizitzan zehar jarduera fisikoa egiten eta hori Gorputz Hezkuntzaren bitartez lortu daiteke. Gainera, ondo pasatzea eta asetzea dakar eta

ikasleak gorputz hezkuntza erabilgarria eta garrantzitsua dela pentsatuko dute. Beraz, irakasleak giro on bat sortzea garrantzitsua da. Atxikiduraren ondorioz, osasun arazoak ekidin daitezke, hala nola, bihotzeko gaixotasunak, gainpisua eta obesitatea. GHren garrantzia nabarmentzen duen beste alderdi bat bermatzen duen bizi kalitatea da, hau da pertsonen osasun fisikoan, egoera psikologikoan, independentzia mailan eta harreman sozialetan laguntzen du.

## 2. Errendimendu akademikoa

Jarduera fisikoak errendimendu akademikoan eragina dauka, ikerketa batean GH zuten ikasle batzuen eta ez zuten ikasle batzuen arteko konparaketa egin zen eta GH zuten ikasleek osasunean, diziplinan, jarreran, gogoetan eta funtzionamendu akademikoan emaitza hobekak ateratu zituzten.

## 3. Konpetentzia motriz

Ikasleek konpetentzia motriz egokia edukitzeak egoera fisiko ezberdinei erantzuteko aukerak edukitzea dakar eta horrek bizi kalitatea ona edukitzeak ekarriko du.

## 4. Balioak

Balioak lantzen dituen metodologiarekin gorputz hezkuntzako klaseak ematen badira erantzukizun pertsonala eta soziala hobetzen dira. Hortaz, gorputz hezkuntzaren bitartez balio ezberdinak garatu daitezke: parte hartzea, errespetua, kooperazioa, lehiakortasuna, erantzukizuna, gaitasunak, sormena, autoezagutza, etab.

Gainera, gaur egun gorputz hezkuntzak mugimenduaren bitartez garapen integrala lortzea du helburu, hau da, ikasleen garapen kognitiboa, soziala, motorra eta emozionala. Gorputz hezkuntzaren helburu orokorra ikasleek beraien gorputza eta ahalmenak ezagutzea da, haien garapena emateko, bizi kalitatea hobetzeko eta aisialdiaz disfrutatzeke. Beraz, lehen hezkuntzan garapen motorra garapen integralaren barruan eman behar da.

Bestalde, azken hamarkadan eskoletan bazterkeriarik ez egoteko ikuskera pedagogikoak eta politikoak egon dira, baita ikasle guztientzako hezkuntza kalitatea ona bermatzen dutenak ere. Horregatik hezkuntza bereziko eskolak kritikatuak izan dira, ikasleak banatzen dituztelako. Hortaz, integrazioa bermatzeko eta ikasle guztien inklusioa bermatzeko hezkuntza zentroen dinamika aldatu nahi dute parte hartzea eta ikasle guztien lorpenak ziurtatzeko (Lleixá, Rios, Gomez, Petreñas eta Puigdemívol,



2017). Beraz, behar bereziak dituzten haurrak, AGH haurrak ere, eskola arruntetan egongo dira eta beraien beharrei erantzuteko prest egon behar gara eta gorputz hezkuntzan ere haiei egokitu behar zaie. Gainera, AGHko haurretan zentratuz, GHk edo jarduera fisikoak onura psikologiko, fisiko eta emozionalak ekartzen dizkiete, hala nola, beraien gorputza ezagutzea eta egin dezaketen mugimenduak aurkitzea, sormena garatzea, autoestimua handitzea, etab. Baina horretarako AGH duten ikasleei motibatzea ezinbestekoa da, parte hartzaileak egin, arduratu, beraiek motrizitate jarduerak egiteko gai direla ikustea eta ondo pasatu ahal dutela ikustea. Dena den, ikasle hauentzat laguntza ezinbestekoa da bai gorputz hezkuntza saioan bai saiotik kanpo.

Arestian aipatu bezala, GHk ikasleen garapen fisikoa, kognitiboa, emozionala eta afektiboa hobetzen du, baita osasunerako ona da ere. Horregatik ikasle guztiek gorputz hezkuntza emateko aukera izan behar dute nahiz eta ezaugarri eta gaitasun ezberdinak izan. Bestalde, gainontzeko ikasleen sentsibilizazioa oso garrantzitsua da eta jarduera fisikoaren bitartez egin daiteke.

Baina, AGHko ikasleen interesa pizteko eta onura horiek bermatzeko Sonia Vidal-ek (2017) hurrengo orientabide metodologikoak aipatzen ditu:

- Taldean lan egitea behar dute
- Gainontzeko ikasleekin egon motrizitate jardueretan
- Erronkak dituzten ekintzak proposatu
- Beraiek ekintzaren bat prestatzea
- Beraiek ikertzea
- Irakasleak originalak izatea

### **3.3. Gorputz hezkuntza eta sormena**

Sormenean eragiten duten inguruneko faktoreen artean hezkuntza daukagu eta sormena garatzeko bide aproposena izan daiteke, umeei denbora asko pasatzen dutelako. Rogers-ek (1991, Martinez eta Justo, 2008tik aterata) hezkuntzaren barruan, hazkuntza pertsonala eta sormenezko gaitasuna bermatzen duen giroa garatu behar zela aipatu zuen, horrela ikasleak bere osotasunean garatzeko aukera izango zuen, sormena ikaslearen garapen integralerako oinarritzeko osagaia izanda.

Psikomotrizitatearen helburua gorputzaren bidez, gaitasun motrizak, espresiozkoak eta sortzaileak garatzea da. Hortaz, sormenaren alde motorra garatzeko aukera ona

izango da. Rey Cao-k (2000, Martínez eta Justo, 2008tik aterata) aipatu zuen sormenaren motrizitateak *“pone en diálogo al cuerpo y a la corporeidad, al homínido y al humano, al movimiento y a la motricidad, al ser y al poder ser, al pensar y al hacer, al sentir y al relacionar”*.

Garapen integralean sormen motorraren garapena duen garrantzia erakusteko Trigo-k (1999, Martínez eta Justo, 2008tik aterata) motrizitatearekin lanak, pertsonaren eraikuntzaren gaineko eragina izatea nahi bada, pentsamendu konplexuko prozesu garapenetik (kritiko eta sortzaile) aurrera eraikita egon behar duela proposatzen du.

Gorputz hezkuntza sormena garatzeko aukerak eskaintzen ditu, hala nola, Mejía-ren (2014, Medranda eta Palma, 2018tik aterata) ustez gorputz hezkuntzak sormena lantzeko ahalmena du, baita irudimena, malgutasuna, kuriositatea, berrikuntza eta jariatortasuna lantzeko aukera ere. Historian zehar, pertsonen sormena eta motrizitatea elkarrekin garatzen joan dira. Gaur egun bi gaitasun horiek hezigarriak dira eta garapen integrala eta interakzioa bultzatzen dute. Gorputz hezkuntzako klaseetan sormena sartu daiteke jarduera fisikoetan eta psikomotrizitatean, hori ikasleen garapen integralean, koordinazioan, konfiantzan eta autoestimuan lagunduko du. Are gehiago, eskolan sormena lantzea beharrezkoa da, ez soilik AGH haurrentzat, edozein haurrentzat landua izan behar den ahalmena da (Medranda eta Palma, 2018).

Esaterako, gorputz hezkuntza sormenaren garapena sustatzeko Betancourt, Chibás, Sainz y Trujillo (1992, Medranda eta Palma, 2018tik aterata) -ek emandako hurrengo ideiak kontuan hartu behar dira:

1. Zalantzak onartzen ikasi
2. Oztopoak gainditzeko nahia sustatu
3. Beraien buruarengan konfiantza garatzea
4. Sormenerako eta gogoetarako pentsamendua garatzeko lan ingurua sortu
5. Orokortzera bultzatu
6. Akatsak egiteko beldurra kendu

## HELBURUAK

- LHko irakasleak AGHko pertsonak identifikatzen dakiten aztertzea
  - AGHri buruz ezagutzarik badaukaten
  - AGHri buruzko formakuntzarik badaukaten edo jaso duten
  - AGHrekiko eta sormenarekiko dituzten mitoak/ estereotipoak aztertzea
  - AGHrekiko eta Gorputz Hezkuntzarekiko dituzten mitoak/estereotipoak aztertzea.

## METODOLOGIA


GrALa aurrera eramateko LHko irakasleei galdetegi bat pasatu zaie. Ondoren, metodo kuantitatibo eran erantzunak aztertuko dira. Modu horretan, AGHren inguruan daukaten informazioa ikusiko da, hala nola, gaiaren inguruan dauzkaten ezagutzak, formakuntzarik jaso duten ala ez, eta zeintzuk diren dauzkaten mito edo estereotipoak AGHko ikasleen inguruan, baita sormenaren inguruan eta Gorputz Hezkuntzarekin lotutako mitoak ere.

Galdetegia, zenbait irakasleei pasatu zaie, baina Covid19 dela eta, ezin izan da, hasieran pentsatutako ikastetxe guztietara ireki. Hori dela eta, jasotako erantzun kopurua ere nahiko murrizta da eta aldi berean ez da guztiz adierazgarria. Etorkizun batean lagin handiagoa lortu beharko litzateke, emaitza esanguratsuak atera nahi badira behintzat. Guztira, 10 irakasleren erantzunak lortu izan dira eta lagin hau, bi taldetan banatu da, ondoren erantzunak aztertzeko. Alde batetik, 50 urtetik gorako irakasleak eta 15 urte baino gehiago lanean egon direnak, 6 irakasleek osatzen dutela. Beste aldetik, 20-39 urte bitarteko irakasleak eta 15 urte baino gutxiago lan egin dutenak, 4 irakasleek osatzen dutela. Partehartzaileak, Euskal Autonomi Erkidegoko irakasleak dira. Gehiengoa gipuzkoarra, 2 bizkaitarra eta 1 arabarra.


Galdetegia pasatu eta gero, emaitzak eta ondorioak ateratzeko, lehenik eta behin irakasleen adinari erreparatuko da, aurretik aipatutako bi taldeak ezberdintzeko eta ezagutza edo formakuntza maila taldeen artean alderatzeko. Gainera, ezagunak izatea ala ez izatea dakartzan eragina aztertuko da. Ostean, AGHko ikasleen inguruko mito orokorrak behatuko dira, ikerketan parte hartu duten irakasleen artean eman duten erantzunak aztertuz. Bukatzeko, ikerketa AGHren, sormenaren eta Gorputz Hezkuntzaren inguruko mitoetan zentratuko da.

## EMAITZAK

Galdetegia aztertu eta gero, hurrengo emaitzak atera dira:




*Grafikoa 1: Lhko 50 urte baino gehiagoko irakasleek, AGHren inguruan duten ezagutza maila*




*Grafikoa 2: Lhko 20-39 urte bitarteko irakasleek, AGHren inguruan duten ezagutza maila*

Aurreko grafikoetan ikus daitekeen bezala (Grafikoa 1 eta grafikoa 2), 50 urte baino gehiagoko irakasleen artean, AGHren inguruko ezagutza maila txikia da. Aldiz, 20-39 urte bitarteko irakasleen artean, nahiz eta %25ak ezagutza maila txikia izan, %75ak, ezagutza maila ertaina duela adierazten du.




*Grafikoa 3: LHko irakasleek AGHren inguruan duten formakuntzaren ehunekoak*

LHko irakasleen artean %70ak ez du AGHaren inguruko formakuntzarik jaso edo egin (Grafikoa 3). Baina AGH duten pertsonak ezagutzean formakuntza jaso duten ehunekoak aldatu egiten da (Grafikoa 4):



*Grafikoa 4: Lhko irakasleak eta AGH duten pertsonak ezagutzen dituztenak, formakuntza jaso dutenen ehunekoak*

Gainera, aipatzekoa da, ezagunak dituztenen artean %67ak formakuntza jaso edo bere kabuz egin dutela.



*Grafikoa 5: Lhko 50 urte baino gehiagoko eta 20-39 urte bitarteko irakasleek AGHko pertsonak alderdi guztietan onak direla pentsatzen dutenen kopuruak*

5. Grafikoan ikus daitekeen bezala, 20-39 urte bitarteko irakasleen %50ak uste du AGHko ikasleak onak direla arlo guztietan eta beste %50ak, aldiz, ez dago ados baieztapen honekin. Bestalde, 50 urte baino gehiagoko irakaslegoaren artean berriz, gehiengoak (%83,3) uste du AGHko ikasleak onak direla arlo guztietan.

SORTZAILEA IZATEA			
	Ados	Desados	Ados/Ez ados
<i>Sortzailea da bere adimenagatik</i>	10	0	0
<i>Jenioak dira</i>	10	0	0
<i>Jaiotzetik dator</i>	8	2	0
<i>Garatu daiteke</i>	4	2	4
<i>Idea erabilgarri asko ditu</i>	10	0	0
<i>Idea originalak ditu</i>	10	0	0

Taula 1: Lhko irakasleek, sortzaile izatea dakartzan ezaugarrien inguruko datuak

Bestalde, Taula 1-ean ikus daitekeen bezala parte hartzaileen %100ak sormena jenioen ezaugarri bat dela, adimenagatik dela (hau da, adimen handia izanda sortzaile izango da), ideia erabilgarri asko eta ideia original asko dituela pentsatzen dute. Gainera, %80ak jaiotzetik datorren zerbait dela uste dute eta %40ak, bakarrik, garatu daitekeen zerbait dela.



Grafikoa 6: LHko irakasleen artean AGHko ikasleak traketsak direla pentsatzen dutenen inguruko datuak

6. Grafikoan ikusten den bezala, 50 urte baino gehiagoko irakasleen artean gehiengoak AGHko ikasleak Gorputz Hezkuntzan traketsak direla pentsatzen dute, %83,3 hain zuzen. 20-39 urte bitarteko irakasleen artean, aldiz, guztiz kontrakoa ikusten da, koloreak buelta eman dute, hau da, gehiengoak traketsak ez direla uste dute, %75ak. Nahiz eta bi taldeetan salbuespen batzuk aurkitu.

## **ONDORIOAK**

Ikerketan zehar aurreikusten nuena baieztatu egin da, batez ere 50 urte baino gehiago duten irakasleen emaitzak ikusita, hala nola, gehiengoak adimen gaitasun handiaren inguruan ezagutza txikiak dituzte. Alde batetik, hezkuntzan oso landua ez dagoen gai bat delako eta bestetik, nire ustez garrantzitsuena, formakuntzarik jaso ez dutelako. 20-39 urte bitartekoen artean, antzeko gertatzen da, batzuk ezagutza ertaina daukaten arren. Honen zergatia formakuntza jaso izatea ala ez da, formakuntza jaso duten irakasleak, bai beraien kabuz edo unibertsitatean, ezagutza maila altuagoa daukate. Gainera, 50 urte baino gehiago dutenak AGH duten ikasleei AGH duten irakasleak irakatsi behar dietela pentsatzen dute, beraiek ikasle horien aurrean erantzuteko gai ez direlako. Hortaz, ikus dezakegu AGH bigarren plano batean dagoen gai bat dela hezkuntza munduan eta pentsaera aldatzen doan arren asko dagoela egiteko. Nire ustez gai honen inguruan formakuntza falta dago, hau da, AGH duen ikasle bat topatzea ez da hain zaila eta ikasle horren aurrean erantzun bat ematea zaila da. Hortaz, formakuntza falta begi-bistan gelditzen da.

Bestalde, aipatzekoa da AGHa duen pertsona bat ezagutzeak eragin handia daukala gai honen inguruan, emaitzetan estereotipo gutxiago dituztela nabarmen ikusten da. Baliteke honen arrazoa prestakuntzarako joera handiagoa izatea. Beraz, esan liteke, AGH duten pertsonak ezagutzeak, gai honen inguruko jakinmina pizten duela eta ondorioz prestakuntzarako joera. Guzti honek, pertsona hauekiko dauden estereotipo eta mitoak gutxituz.

AGHko pertsonak alderdi guztietan bikainak direlaren aurreikuspena baieztatu egin da, batez ere 50 urte baino gehiago dutenen artean nahiz eta 20-39 urte bitartekoen artean batzuk ere hori pentsatu. Ondorioz, adimen gaitasun handia duten ikasleak ez dutela laguntzarik behar dena ondo egiten dutenaren mitoa egiaztatu egin da. Baina

errealitatean, badaude AGH duten ikasle kopuru bat non mito hau dela eta, bere beharrak asetzen ez diren eta ondorioz eskola porrota jasaten duten. AGHko haurrak esparru ezberdinetan nabarmendu daitezke eta beste batzuetan ez, hala nola, ikasle bat sormenean apartekoa izan daiteke baina matematiketan kostatu. Beraz, alderdi guztietan bikainak ez direla esan dezakegu eta askotan laguntza behar dute.

Aurrekoarekin lotuta hurrengo mito daukagu: Adimen gaitasun handiko hurrek sormen handia daukate. Emaizak analizatuz mito hau jendearen artean jarraitzen duela ikusi da, askok AGHko pertsonak gauza guztietan onak direla eta sortzailea izateko talentuduna izan behar zarela pentsatzen dutelako. Adimen gaitasun handia izatea sormenean emaitza hobek izaten lagundu dezake baina adimen gaitasun handiko pertsona guztiak ez dira apartekoak sormenean. Horrez gain, hezkuntza munduan sormena alde batera uzten da, matematika eta hizkuntzaren azpian, gaitasun akademikoan zentratzen delako, hortaz, ikasleak sormena garatzeko aukera gutxi dituzte, bai AGHko ikasleak bai gainontzeko ikasleak. Sormena hezkuntzan bultzatu behar den esparrua da eta oso gutxitan garrantzia ematen zaio, gaur egun gero eta gehiago bultzatzen saiatu arren. Garatu daitekeen alderdia denez bai AGHko ikasleentzat bai beste ikasleentzat onuragarria izango litzateke behar duen garrantzia ematea, hizkuntza eta matematikari ematen zaien bezala.

Halaber, Gorputz Hezkuntza bigarren mailan batean dagoen irakasgai da eta batez ere AGH dute ikasleen artean. Hau da, AGH duten ikasleak Gorputz Hezkuntza ez dutela egin behar, ez zaiela gustatzen edo traketsagoak direla pentsatu ohi da. Ikerketaren emaitzak atera ondoren hori baieztatu egin da nahiz eta pixkanaka-pixkanaka aldatzen joan, 50 urte baino gehiago duten pertsona multzoak traketsagoak direla uste dute, 20-39 urte bitartekoen artean, aldiz, gehiengoak traketsak ez direla uste dute. Ondorioz, pentsamolde aldaketa ematen ari dela pentsatu dezakegu eta AGHko ikasleei Gorputz Hezkuntzak ekartzen dizkien onura fisiko, psikologiko eta emozionalaz ohartzeko ari dela. Gorputz Hezkuntza edozein ikasleentzako onuragarria izanda, AGHko ikasleentzako onuragarria dela pentsatu dezakegu beraien adimena eta harremanak bultzatzeko. Gainera, aipatzekoa da AGHko ikasleak erronkak eta ikertzea dakatzaten ariketak gustuko dituztela eta Gorputz Hezkuntza horiek egiteko aukera bikaina da baina ez da onura hori ikusten.

Aurrekoa esanda, AGH gaiaren inguruan aurrerantz goazela esan dezakegu eta gero eta informazio gehiago daukagula, baita formakuntza handiagoa daukagula ere. Baina asko dago egiteko oraindik, batez ere formakuntza aldetik, gaur egun eskoletan



edo ikastoletan lanean dauden irakasleak AGH duen ikasle baten aurrean erantzuna ematen jakiteko eta estereotipoak edo mitoak alde batera usteko. Eskoletan dauden irakasleen artean askok 50 urte baino gehiago daukate eta lehen ez zegoen gaur egun dagoen informazio berdina, hortaz irakasle horiek, batez ere, AGHko kasu baten aurrean zer egin jakiteko formakuntzak bultzatzea onuragarria izango litzateke. Gainera, gaur egun eskoletan aniztasun handia aurkitzen dugu, beraz ez soilik AGHaren inguruan, baizik eta orokorrean formakuntza behar da behar bereziak dituzten hurrei erantzuteko.

## **MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Nire lanean zehar, oraingo egoera kontuan hartuta, hau da, mundua pasatzen ari den pandemia covid-19a dela eta hainbat arazo edo muga aurkitu ditut, besteak beste ikerketa burutzeko lagina oso txikia izan dela. Nahiz eta galdetegia pasatu askok ez dute erantzun nahi izan egoera honek sortzen duen urduritasunagatik edo denbora faltagatik. Hortaz, nire ikerketa nahiko mugatua geratu da baina ikerketa aurrera eramateko balio izan dit.

Bestalde, hobetzeko proposamen bezala edo etorkizuneko ikerketa bezala ondo egongo legoke eta interesgarria izango zen Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasleei galdetegia pasatzea emaitzak konparatzeko. Batez ere, pentsaera aldaketa egon den ikusteko, adibidez Gorputz Hezkuntzak AGHko ikasleei egiten dien mesedeaz ohartzen diren ala ez, traketsak direla pentsatzen duten ala ez, edo AGHko ikasleak sormen handia dutela pentsatzen duten ala ez, etab aztertzeko. LHko etorkizuneko irakasleek ea formakuntza gehiago jasotzen duten aztertzeko aukera emango lukeela aipatzekoa iruditzen zait ere.

Gainera, lagina hain txikia izan dela ikusita galdetegia lehenago pasatzea lagundu dezake, jendeari erantzuteko denbora gehiago eskainiz.

## BIBLIOGRAFIA

Aisenstein, A. eta Guterman, T. (2007) ¿Qué es la Educación Física? Una mirada desde la historia. *Lecturas: Educación física y deportes*. (105), 1.

<https://www.efdeportes.com/efd105/que-es-la-educacion-fisica.htm>

Albes, C.; Aretxaga, L.; Etxebarria, I.; Galende, I.; Santamaria, A.; Uriarte, B. eta Vigo, P. (2013) *Orientaciones educativas. Alumnado con altas capacidades intelectuales*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.

Álvarez, E. (2010) Creatividad y pensamiento divergente. Desafío de la mente o desafío del ambiente.

Aupatuz elkarte (2020) Aupatuz. Euskal Herria: *Asociación de niños y niñas con altas capacidades del País Vasco*. Web orri honetatik hartua: <https://aupatuz.eus/concepto/>

Boletín Fanjac- Mitos y verdades sobre alumnos de Altas capacidades. Septiembre 2010, (5)

Borges, A., Hernández, C., & Rodríguez, E. (2009). Superdotación y altas capacidades intelectuales, tierra de mitos. *Universidad de La Laguna*, 1-11.

Castaño, V. (2006) Creatividad: Mitos vs Realidades

Celdrán, A., Valero, A. & Sánchez, B. J. (2016). La importancia de la educación física en el sistema educativo. *Emáf, Revista Digital de Educación Física*. (43), 83-96. Webgune honetatik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5758183>

Contreras, O. R., Gil, P., Sebastiani, E., Pascual, C., Huguet, D., Hernández, J. L., ... & Capllonch, M. (2010). *Didáctica de la educación física*. 2. Ministerio de Educación.

EHA - 1998ko abuztuak 31, 164 ZK.

- Ernst-Slavit, G. (2001) Educación para todos: La Teoría de las Inteligencias Múltiples de Gardner. *Revista de Psicología de la PUCP*. 19(2) 319- 332.
- Etxebarria, A., Arpide, X., Badiola, G. eta Martinez, M. (2019) Adimen gaitasun handiko ikasleei hezkuntza arreta emateko plana 2019-2022. *Hezkuntza saila*
- Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza-premia Bereziak Lehen-mailako Hezkuntzan
- Gagné, F. (2014) De los genes al talento: la perspectiva DMGT/CMTD. *Revista de educación*. (368), 12-39.
- García, F. (2004) Una educación de calidad para los niños bien dotados desde la atención a la diversidad. De la educación integradora a la educación inclusiva. *Revista Complutense de Educación*. 15(2), 597-620
- Hernandez, D. eta Gutierrez, M. (2014) El estudio de la alta capacidad intelectual en España: Análisis de la situación actual
- Jimenez, J.; Artilles, C.; Rodríguez, C.; García, E.; Camacho, J. eta Moraes, J. (2008) Creatividad e Inteligencia: ¿dos hermanas gemelas inseparables? *Revista española de pedagogía*. 240, 261-282
- Lleixá, T.; Rios, M.; Gómez, G.; Petreñas, C. eta Puigdellivol, I. (2017) Actitudes inclusivas en la formación del profesorado de educación física. *Agora para la educación física y el deporte*. 19(2-3), 277-297
- Martínez, E. J., & Justo, C. F. (2008). Influencia de un programa de intervención psicomotriz sobre la creatividad motriz en niños de educación infantil. *Bordón. Revista de pedagogía*, 60(2), 107-122.
- Marugán de Miguelsanz, M.; del Caño Sánchez, M.; Román Sánchez, J.; Torres González, M. eta Lara Serna, B. (2006) La creatividad en alumnos de altas capacidades. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, vol. 3, (1), 387-396
- Marugán, M.; Carbonero, M.; Torres, M. eta León, B. (2012) Análisis de las relaciones

entre creatividad y altas capacidades en Primaria y Secundaria. *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*. 3(10), 1081-1098

Medranda, J. L. eta Palma, J. F. (2018) Una alternativa metodológica para el desarrollo de la creatividad durante la Educación Física y el Deporte. *Didasc@lia: Didáctica y Educación*. 9(3), 157-178

Mora, J.A. eta Martin, M.L. (2007) La concepción de la inteligencia en los planteamientos de Gardner (1983) y Sternberg (1985) como desarrollos teóricos precursores de la noción de la inteligencia emocional. *Revista de historia de la psicología*. 28 (4), 67-92.

Ortiz, M. & Torres, J. (2009) El currículo de Educación Física en la Educación Primaria. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (27), 1.

Renzulli, J. eta Geasser, A. (2015) Un sistema multicriterial para la identificación del alumnado de alto rendimiento y de alta capacidad creativo-productiva. *Revista de Educación*. (Extra 368), 96-131.

Vecina, M. L. (2006) Creatividad. *Papeles del Psicólogo*. 27 (1), 31-39

Vidal, S. (2017) Educación física y Altas Capacidades. Hemendik aterata: <http://www.altacapacidadesy talentos.com/aacc-y-educacion-fisica/>